

**Saridunak****ILUSTRAZIOAK****A mailan, 1. saria:** Mikel Arriet (Bera, Nafarroa).**A mailan, 2. saria:** Leire Ortiz (Bilbo).**B mailan, 1. saria:** Ihintza Udaeta (Bera, Nafarroa).**B mailan, 2. saria:** Itsaso Larrioz (Orizin, Nafarroa).**C mailan, 1. saria:** Ainhoa Garcia (Legazpi, Gipuzkoa).**C mailan, 2. saria:** Ana Maria Serna (Gasteiz).**IPUINAK****A mailan, 1. saria:** Maialen Galparsoro (Ataun, Gipuzkoa).**A mailan, 2. saria:** June Montero (Arrigorriaga, Bizkaia).**B mailan, 1. saria:** Olatz Gorrotxategi (Hondarribia, Gipuzkoa).**B mailan, 2. saria:** Aitana Jone Macho (Arrigorriaga, Bizkaia).**C mailan, 1. saria:** Leire Akizu (Urretxu, Gipuzkoa).**C mailan, 2. saria:** Andoni Agirre (Irun, Gipuzkoa).• www.elkar.com/lehiaketa webgunean daude lan guztiak.

Joan den larunbatean banatu zituen Elkarrek ilustrazio eta ipuin lehiaketako sariak, Donostiako Elkar liburu dendan. Parte hartzaile kopuruak nabarmen egin du gora, eta aurkeztu diren lanak ere originalak eta kalitate handikoak izan dira

Oso oparoa izan da aurtengo uzta, inoiz baino marrazkilari eta idazle gazte gehiago aurkeztu baitira Elkarrek antolatutako ilustrazio eta ipuin lehiaketara. Hauxe zen lehiaketa antolatzen zuten bosgarren aldia, eta gatzetxo ugari animatu dira parte hartzera. Orotara, 6.562 lan aurkeztu dira: 781 ipuin eta 5.781 ilustrazio edo marrazki. Iaz baino bi mila lan gehiago jaso dituzte. «Aurreikuspen guztiak gáinditu dira», aitortu du, pozez, Lierni Mendizabalek, lehiaketako koordinatzaileak. «Lan asko eta oso maila onekoak» jaso dituztela aitortu dute Elkarrekoek, bai ipuinetan eta baita ilustrazioetan ere.

Antton Kazabon idazlearen *Par-*

ke bakartia ipuinarentzako marrazkia egin behar izan dute 5 eta 10 urte bitarteko haurrek. Patxi Gallegoren sirenatxoarentzako ipuina sortzea izan da, berriz, 11 eta 16 urte bitarteko gatzetxoek egin behar izan duten lana.

Urteen arabera, hiru maila berezi dituzte atal bakoitzean, beraz, seina sari eman dituzte ilustrazio eta ipuin lehiaketan. Alboko laukian dituzue irabazleen izenak. Lan guztiak sarean daude ikusgai: www.elkar.com/lehiaketa atarian.

Maiatzaren 28an jakin ziren irabazleen izenak, eta larunbatean banatu ziren sariak, Donostiako Elkar liburu dendan. Irabazleek pozik jaso zituzten sariak.

Lan guztien artetik sarituak aurkeztzeko nahiko lan izan dute

epaimahaiko lagunek. Hauek izan dira epaileak: Patxi Gallego, Borja Goitia, Janire Garcia, Antxiñe Mendizabal, Itziar Irastorza eta Katti Olaizola.

Ilustrazioaren arloan, haurrek erabilitako «teknika anitztasunak» harritu omen ditu epaileak. Erregistro aldetik ere askotarikoak izan omen dira aurkeztutako lanak. Sarrituen izenak hautatzeko, «anitztasuna bilatu» dutela aipatu dute.

Ipuinaren arloan ere «oso zaila» izan omen da maila bakoitzeko bi ipuin bakarrik hautatzea. Lanetan «originaltasuna» eta «gaurkotasuna» izan direla nagusi diote.

Haurren artean irakurzaletasuna bultzatzeko eta euskara sustatzeko asmoarekin hasi ziren lehiaketa antolatzen, orain bost urte. Urtetik urtera, izugarri igo da parte hartzaileen kopurua. Urtero, lan gehientsuenak Gipuzkoatik iristen dira, nabarmen; atzetik, bizkaitarrak dira gehien parte hartzen dutenak. Oro har, baina, probintzia guztietako lanak jaso ohi dituzte. Aurtengoa ere Euskal Herriko txoko guztietatik jaso dituzte lanak.